

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA - 2016ko apirila

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %6,1 gehitu dira 2016ko apirilean

Urteko lehen lau hilabeteetan, bidaiarien hazkundera %13,5, gaualdiena %14,4

2016ko apirilean, 221.555 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 12.730 gehiago, %6,1eko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %8,2 gehitu ziren Bizkaian, %5,0 Gipuzkoan, %1,6 Araban. Komeni da gogoraraztea 2015eko Aste Santua apirilean izan zela eta aurtengoa martxoan.

Gaualdiak, 2016ko apirilean, 397.202, aurreko urtekoan baino 10.447, %2,7, gehiago. Gaualdiak urte artean gehitu Bizkaian (%4,4) eta Gipuzkoan (%2,4); gutxitu Araban (%-2,8).

Urteko lehen lau hilabeteetan —alderaketa homogeneousan- sarrerak %13,5 gehitu dira Euskal AEn eta gaualdiak %14,4. Hiru lurraldeetan gehikuntzak sarrera eta gaualdietan. Araban %9,3 sarreretan eta %12,4 gaualdietan; Bizkaian %12,1, %13,0; Gipuzkoan %16,9, %17.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko apirila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2016/04	m/m-12 (%)	2016/04	m/m-12 (%)	2016/04	2015/04	plazaka		gelaka	
							2016/04	p.p.*	2016/04	p.p.*
EUSKAL AE	397.202	2,7	221.555	6,1	1,79	1,85	46,4	0,4	58,9	2,1
Estatukoak	239.306	-3,9	137.847	1,9	1,74	1,84	-	-	-	-
Atzeritarrak	157.896	14,6	83.708	13,7	1,89	1,87	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	46.636	-2,8	27.675	1,6	1,69	1,76	34,8	-0,8	46,5	2,3
Estatukoak	33.454	-5,1	20.131	-1,5	1,66	1,72	-	-	-	-
Atzeritarrak	13.182	3,6	7.544	10,9	1,75	1,87	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	35.739	0,0	20.481	2,1	1,74	1,78	38,0	-0,1	53,4	4,8
BIZKAIA	193.611	4,4	107.818	8,2	1,80	1,86	47,6	0,7	62,9	2,4
Estatukoak	118.566	0,4	68.734	7,1	1,72	1,84	-	-	-	-
Atzeritarrak	75.045	11,3	39.084	10,3	1,92	1,90	-	-	-	-
Bilbao	131.457	5,9	72.529	10,2	1,81	1,89	56,8	2,6	73,6	3,9
GIPUZKOA	156.955	2,4	86.062	5,0	1,82	1,87	49,8	0,4	58,9	1,4
Estatukoak	87.286	-8,8	48.982	-3,2	1,78	1,89	-	-	-	-
Atzeritarrak	69.669	21,0	37.080	18,3	1,88	1,84	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	92.471	3,5	50.638	5,7	1,83	1,86	56,7	0,6	67,0	1,1

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea


Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Atzerriko bidaiariak %13,7 gehitu dira aurreko urteko apirilaren aldean Euskal AEn, eta estatukoak %1,9. Araban estatukoak %1,5 gutxitu; atzeritarrak %10,9 gehitu. Bizkaian estatukoak %7,1 gehitu; atzeritarrak %10,3. Gipuzkoan estatukoak %3,2 gutxitu; atzeritarrak %18,3 gehitu.

Batez besteko egonaldia, apirilean, 1,79 egun, 2015ekoan 1,85 zelarik. Araban lehengo urteko 1,76 egunetik aurtengo 1,69ra laburtu; Bizkaian 1,86tik 1,80ra; Gipuzkoan 1,87tik 1,82ra.

Plazakako betetze-maila ehuneko 0,4 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2015eko apirileko %46,0tik aurtengo %46,4ra. Araban ehuneko 0,8 puntuz jaitsi, %35,6tik %34,8ra. Bizkaian ehuneko 0,7 puntuz gehitu, 2015eko apirileko %46,9tik aurtengo %47,6ra. Gipuzkoan ehuneko 0,4 puntuz gehitu, 2015eko apirileko %49,4tik aurtengo %49,8ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko 2,1 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %58,9ra. Araban ehuneko 2,3 puntuz gehitu, %46,5era; Bizkaian 2,4z, %62,9ra; Gipuzkoan 1,4z, %58,9ra.

Plazakako hotel-okupaziorik handienak apirilean Bilbon (%56,8), Donostian (%56,7), Gipuzkoako kostaldean (%51,5). Asteke eguna aintzat hartuta, 2016ko apirilean okupaziorik handiena (%56,4) aste-bukaeretan; %41,4 lanegunetan.

Landa-ostatueta sarrerak %8,4 gutxitu eta gualdiak %26,2, 2016ko apirilean

Euskal AEko landa-ostatueta 10.035 bidaiari-sarrera erregistratu ziren apirilean, aurreko urteko hil beraren aldean %8,4 gutxiago. Araban %-1,3 sarreretan; Bizkaian %-6,5; Gipuzkoan %-12,3. Atzeritarren sarreretan %-6,7 aurreko urtekoen aldean; sarrera guztien %12,2 dira. Estatuko bidaiarien sarrerak %8,7 gutxitu. Komeni da gogoraraztea 2015eko Aste Santua apirilean izan zela eta aurtengoa martxoan.

Euskal AEko landa-establezimenduetan apirilean 19.561 gualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %26,2 gutxiago. Araban %-13,8; Bizkaian %-20,8; Gipuzkoan %-33,8.

Plazakako betetze-maila, %16,3, ehuneko 6,0 puntu gutxiago 2015eko apirilean baino. Araban ehuneko 4,3 puntu gutxiago, betetze-maila %17,0. Bizkaian betetze-maila %16,4, ehuneko 4,0 puntu gutxiago 2015eko apirilaren aldean; Gipuzkoan 8,0 puntu gutxiago, %15,9.

Bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu egin da 2015eko apirilaren aldean: duela urtebete 2,42 egun; azken honetan, 1,95.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko apirila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2016/04	m/m-12 (%)	2016/04	m/m-12 (%)	2016/04	2015/04	2016/04	p.p.*
EUSKAL AE	19.561	-26,2	10.035	-8,4	1,95	2,42	16,3	-6,0
Araba/Álava	4.510	-13,8	2.172	-1,3	2,08	2,38	17,0	-4,3
Bizkaia	5.907	-20,8	2.943	-6,5	2,01	2,37	16,4	-4,0
Gipuzkoa	9.144	-33,8	4.920	-12,3	1,86	2,46	15,9	-8,0

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko datu-bankua